


ENPRESEI ZUZENDUTAKO DEIALDIA, BASQUE CIRCULAR HUB DELAKOAREKIN EKONOMIA ZIRKULARREKO PROIEKTUAK GARATZEKO

Unibertsitateko graduako azken ikasturtean dauden gazteekin lan

Ihobe, [Basque Circular HUB](#) delakoaren koordinatzaile gisa, ekonomia zirkularreko proiektuak garatu nahi dituzten enpresen bila ari da, produktuarekin zerikusia dutenak lehenetsita eta unibertsitateko graduetakoa azken urtean dauden talentudun gazteekin lan egiteko.

Ihobek eskainiko die prestakuntza gazteei, eta 80 orduko ikastaro batean egingo du, non Ihoberen laguntza izango duten praktika batzuetan eta **asteko tutoretza teknikoen zerbitzu** baten bitartez.

Parte hartu nahi baduzu, eman izena [esteka honetan](#) urriaren 15a baino lehen, eta zehaztasunak emateko deituko zaitugu. Zalantzarik baduzu, [idatzi](#).



BALDINTZAK

GAZTEEN PROFILA

- Graduko azken urtea ikasten, eta profil teknikoarekin.
- Ihobek ematen duen 80 orduko ikastaro semipresentzial batean prestakuntza jaso izana, produktuaren bizi-zikloaren azterketan eta ekodiseinuan oinarrituta (Open LCA softwarearekin).
- Bereziki Bizkaikoa.

PRAKTIKEN BALDINTZAK

- Hasiera: 2022ko azaroa eta abendua bitartean.
- Iraupena: 5 hilabete eta 20 ordu hilean, gaztearekin adosten den ordutegian.
- Ihobek laguntza emango du gai teknikoetarako asteko tutoretzen bitartez.
- Hezkuntzako lankidetza-hitzarmena unibertsitatearen eta enpresaren artean.
- Gazteentzako diru-kopurua: 400 € /hilabete, enpresaren kargura.
- Plazak: 18 enpresa.
- Basque Circular HUBek enpresei aldez aurretik esleituko dizkie gazteak bi aldeen premien eta interesen arabera.
- Basque Circular HUBek ez du sarbiderik emango bizi-zikloaren softwarearen lizentzietara, SimaPro, esaterako.

ENPRESAREN KONPROMISOA

- Gaztea ingurumen-profila duen proiektu batean edo gehiagotan sartzea, eta bereziki gomendatuko dira proiektuarkein zerikusia duten proiektuak, bai eta bizi-zikloarekin, karbono-aztarnarekin, ekoetiketekin, produktuaren ingurumen-adierazpenekin edo ekodiseinuarekin zerikusia dutenak ere.
- Gaztearekin tutoretza-lanak egitea.
- Hezkuntzako lankidetza-hitzarmenaren baldintzak betetzea.

